

IRITZIA

M. Karmen Elorza

ERREPORTAIA

Ihauteriak argazkitan

UDALETXETIK

HB eta PP alderdiak
OTA jartzearen kontra

GEHIGARRIA

kiliBARREN

BERBETAN

Paulo Chagas,
Brasiletik etorritako
Tai Chi irakaslea

KIROLA

Eskubaloiko jubenil
eta kadete neskek
ligako txapeldunak

BARREN

1998ko otsailaren 27a
VI. urtea - 227.

zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Euskal Ihauteria Dantza eta kolo- re ikuskizuna



“Gauzarik apalenak dira benetan handienak” Balzac

Prestakuntza Sendoa



Gaurko

EUSKAL GIROAN
• INGELESA 4 URTEK
• GIRO ATSEGINEAN

eta

- HEZKUNTZA PROIEKTU AURRERATUA
- AZKEN TEKNOLOGIEKIN
- GIZA BALOREETAN OINARRITUTA
- EUROPARA ZABALDUTA

Biharko



elgoibarko ikastola

ermuan bide 7 • tel. 744441- 20870 elgoibar • elgoibar@ikastola.net





Mª KARMEN ELORZA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Berdintasuna-ezberdintasuna

Joan den otsailaren 5ean Emakundeek hamar urte bete zituela-eta, egokia iruditu zait gai honi azertu bat ematea. Emakumearen berdintasunaren bidean aurrerapenak eman behar direla ukaezina dela agerian dago.

Gauzak aldatzen doaz baina oraindik ere enpresa batera lan bila joatean gizona nahiago dela uste dut. Ordaintzeko orduan ere ezberdintasunak nabarmenak dira. Emakumeari gutxiago ematen zaio emakumea izateagatik bakarrik. Lana ondo eginez gero, ordea, zer axola du nork egin duen?

Haurdunaldia dela-eta, enpresek aukera gehiago eskaini beharko lituzkete postu batetik beste batera mugitzeko, batez ere lan nekez batetik lasaiago batera. Haurra jaiotzean, amak eta jaioberriak asko zaindu behar dutenez, lan ordu asko galtzea suposatzen du eta horregatik ez omen gara errentagarriak. Kasu askotan, gainera, haurdunaldi batek lanpostua betirako galtzea dakar.

Emakumeek jasaten dituzten jipoi eta tratu txarrak eguneroko ogi bihurtzen ari zaizkigu zoritxarrez, kasu askotan hiltzerainokoak direnak.

Biktimen Arretarako Zerbitzuan jasotako datuen arabera, 1997an tratu txarren 83 salaketa izan ziren Gipuzkoan. Bat bakarra ere larregi deritzot. Hala ere, kasu asko ez dira etxetik irteten lotsa edo beldurrarengatik.

Badirudi zenbait gizonak emakumeari beldurra diotela eta etxean prakak nork dara-

matzan garbi gera dadin erabiltzen dutela biolentzia. Emakumeak ez du nahi gizonekoaren gainetik jartzerik, laguntza eskatzen dio bata bestearen beharra baitugu, eta pertsona garenez, eskubide berak ditugulako.

Emakunderen antzeko erakunde berri bat sortu beharko litzatete gizoneko askok pertsonen arteko harremanez dituzten ezjakintasunak eta nahaspilak konpontzeko. Asko dute ikasteko eta onartzeko gai honez.

Lantoki edo familietan behar bada hobeto eramango ginatete elkarri kasu eginez gero.

Nire adineko gizonekoaren artean etxeko zereginetan partaidetza maila baxu xamarra dela deritzot. Horretan emakumeok ere badugu erru piska bat; bultzatu eta animatu beharko genituzke, etxean denon partaidetza beharrezkoa baita. Oraingo bikote gazteak, bestalde, ari dira poliki-poliki ikasten, batez ere biek lana duten etxeetan.

Rolak aldatzen joan beharra dago, bakoitzak daukagun tokitik, goi karguetatik hasi eta nork bere inguru hurbilenean emakumeon balioa agerian jar dagigun.

Gure adineko emakumeok ez dugu abantaila handirik izan ikasketa gutxirekin gelditu ginelako, baina paper ona betetzen dugu gizarte honetan etxeko ekonomia zainduz, seme-alaben heziketaz eta osasunaz arduratuz...

Gehiago luzatu gabe, nik ere Emakunde edo beste horrelako erakunde askok bezala, eskubideen berdintasunaren alde egingo dut.

"Emakunderen antzeko erakunde berri bat sortu beharko litzatete gizoneko askok pertsonen arteko harremanez dituzten ezjakintasunak eta nahaspilak konpontzeko"

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,
Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegi,

Ana Artetxe, Mari Karmen Elorza,

Maidier Elustondo, Aintzane Garate,

Jon Garate, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Miriam Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Peio Ansola elgoibartarra, berriaz preso politikoa

Peio Ansola Larrañaga, Elgoibarko errefuxiatu historikoa hilaren 18an atxilotu zuten Hendaia tren geltokian. Izan ere, Ipar Euskal Herrira bueltatzea debekatuta zeukan eta Pariseko konfinamendua apurteagatik 5 hilabeteko gartzela zigorra ezarri diote. Pasa den larunbatean, Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituriko manifestazio batek herriko kaleak zeharkatu zituen atxiloketa berri hau salatzen. Era berean, Peiori gure elkartasuna adierazi nahi diogu, eta euskaldunon kontrako errepresioa salatzeaz gain, euskal errefuxiatuek Euskal Herrian bizitzeko eskubidea izan behar dutela aldarrikatzen dugu.

Elgoibartar guztiak animatzen ditugu gure herriko preso guztiei eta Peiori elkartasuna adierazteko. Bere helbidea hau da: Jose Luis Ansola Larrañaga. Maison d'Arret de Baiona. 44, rue Charles Floquet. 64100 Baiona.

**Amnistiaren Aldeko
Batzordea**

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

◆ Emakume bat etorri da BARREnera Andikao inguruan zakarrontziak jartzeko asmorik ote dagoen jakin nahian. **“Andikaoon jende mordoia ibiltzen da pasiaran eta ‘Garbiketa Plan Pilotoa’ martxan dagoenez, eta herri erdian zakarrontzi ugari jarri dituztenez, inguru honetan ipiniko dituzten ala ez jakin nahi dut”.**

Garbiketa Plan Pilotoaren arduradunarekin harre-

manetan jarri gara eta hona hemen zer esan digun: **“Emakume honek proposatzen duena ez da ideia txarra. Lehenengo pausoa ingurua aztertzea da eta zakarrontziak dauden ala ez ikusi. Zakarrontziak jartzea egokia dela ikusiz gero, Udalak hala egingo du, prin-tzipioz ez baitago inolako arazorik. Bide batez, emakume honi eskerrak luzatu nahi dizkiot proposamen hau bideratzeagatik”.**

TXALOKAK

◆ **“Parrokiako Cárítasek Herri Eskolako 4. mailako txalotu nahi ditu emandako laguntzarengatik. Santa Ageda Eskean ibili ziren koruko kideen eta Itxaropena abesbatzako laguntza ere eskertu nahi dugu. Mila esker denoi”.**

◆ **“Ikastolako neska-mutilak txalotu nahi ditugu astearte arratsaldean egin zuten musika desfilearengatik. Giro oso ona eta martxa handia jarri zuten katean”.**

BAI, ESAN?



Antonio Azpiazu

Pilota Federazioko lehendakariordea

Aste honetan kirol kontuak ekarri behar ditugu gure telefonora. Sortu berri den ASPE pilota enpresak ASEGARCEk orain arte zeukan eskusiba apurtu du eta haserreak eta konponezinak azaldu dira alde guztietan. Oraingoan **Pilota Federazioko lehendakariordea den Antonio Azpiazuri** deitu diogu bere iritzia jakiteko.

- ASEGARCEri ez zaio batere gustatu ASPE azaltzea. ETB bera ere auzitara eraman behar omen du. ASEGARCEk hori egiteko eskubidea dauka baina galtzen ere aterateke. ASEGARCEk ez zuen espero itzala egingo zion enpresarik aterako zi-tzaionik. ASPE enpresak ETBekin kontratu bat egin du 50 partidu telebistaz emateko. ETBk frontoietan egiten den publizitate estatikoaren zenbateko bat jasoko du eta eurentzat negozio biribila izan da ASPE agertzea. Honez gainera, Ameriketara partiduak sal-tzeko aukera ere izango du.

- Zer du irabazteko esku pilotak? Asko. Pilotarentzat orokorrean ona izango da eta zaletuentzat ere bai. Esku pilota euskal kirola da baina ez zen gehiegi nabaritzen. Izan ere, ASEGARCEk Tele 5 espainiar kate pribatutik ematen zituen partiduak. Hemendik aurrera euskal kate batek eskainiko ditu eta aurrez hitzartutako 50 partidu horiez aparte gehiago ere emango dituztela pentsatzen dut.

- Zein izan dira enpresa hau sortzeko arrazoiak? Esku pilota bultzatzea izan da arrazoi nagusia. Dirua ere behar da horrelako enpresa bat muntatzeko eta horretarako hainbat erakunde tartean sartu dituzte, Kutxa, esaterako. Printzipioz enpresa sendoa dirudi. Afizionatuekin hasi ziren baina argi dago konpetitu ahal izateko, figurak bereganatu behar direla. Dagoeneko Titin, Elkorro eta batzuekin kontratua egin dute. Re-tegi kanpan geratu da, urak baretu arte.

Zein etorkizun ikusten diozu geure den kirol honi? Oinarri-oinarritik egin behar da lan, pazientzia handirekin, gorantz egin ahal izateko. Hori da zerbait egin ahal izateko modu bakarra.



ESKERTZA

1998ko otsailaren 13an, 79 urte zutuela hil zen ANDRESA LARRAÑAGA ARANBERRÍren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Mozorro desfilea argazkitan

Irudiek hitzek baino gehiago esaten dutela dioen esaldia oso ezaguna da, eta hori egia dela ihauterietan beste inoiz baino gehiago baieztatu daiteke. Ondoko argazkiak larunbatean eta asteartean ateratakoak dira. Asteburuan jende gehiago ibili zen normala denez, baina astearte arratsaldean umeen txanda izan zen eta gauean atera zirenek ere ondo pasatzeko go-goa zutela argi erakutsi zuten. Egin errebasua eta ea mozorroen atzean izkutatzen diren aurpegiak ezagutzen dituzuen. Hurrengo urtean izango da berriz ere etxeko trazu zaharren artean arakatu eta pertsonaia berezi eta desbedinez jatzeko aukera.







35 orduko lanastearen alde zaudete?



INES BENITEZ
41 urte, etxeoandrea

Ez zait gaizki iruditzen baina langabezia konpontzeko beste irtenbide batzuk ere bilatu behar direla uste dut: ordu estrak kontrolatu, inbertsioak bultzatu...



AITOR LORENZO
25 urte, espezialista

Printzipioz alde nago lanpostuak sortuko liratekeelako baina bestetik, soldata jaitxi egingo litzateke eta hilero bi eguneko soldata gu-txiago izatea igerrri egiten da.



MIRARI ARIZMENDI
26 urte, langabetua

Horrela denontzako lana egongo balitz ez dao geizki. Baina horretarako danian ein biharko litzake gauza berdina, danak lan gitxio ein langabeturik ez egoteko.



DEMETRIO GONZÁLEZ
50 urte, funtzionaria

Komenigarria izango litzateke, nahiz eta langabezia desagertzeko ez den nahikoa izango. Gure lantokian, adibidez, 35 orduko lanalditik gertu gabiltza, 37 ordu egiten baititugu.



LOLI OTERO
29 urte, administraria

Lanpostu gehiago sortzeko bada ondo dago. Langabetuak neurri honen alde egongo dira baina soldata bakarria eta diruz justu dabiltzanek oso bestelako iritzia izango dute.



ANTONIO MORENZA
62 urte, jubilatua

Bai, neurri oso ona iruditzen zait. Hala ere, enpresaren egoera kontuan hartu behar da ez baita berdina enpresa ondo edo gaizki egotea.

HERRI-GAİN
ERRETEGIÀ

San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Idoia Arrilaga
PODÓLOGA

CENTRO PODOLÓGICO
IBILTZEN
ZENTRU PODOLOJIKOA

Ubitarte plaza, 11 Tel: 74 36 56

● **Argi-indarrak huts egin zuen zapatuan**

Hiruzpalau aldiz argi-indarrrik gabe geratu zen Elgoibar zapatu gauean. Jakin dugunez, tentsio-ko kableen aislatzaileak eten egin ziren eta horixe izan zen argia joatearen arrazoia. Kableak bistan geratu ziren eta euria ari zuenez, txipazoak sortu eta argia joan egin zen. Ondorioz, hiruzpalau aldiz argirik gabe geratu zen herri osoa. Iberdrolako teknikariek aberia topatu eta igandeko goizaldeko 4:30ak aldera, arazoa konpontzea lortu zuten. Argi falta zela eta, ihauteri gaueko ospakizunak eten egin ziren une batzuetan, baina azkenean ekitaldi guztiak ondo burutu ziren, aurrez programatuta zegoen bezala. Zenbait banketxe eta aurrezki kutxatako kutxazain automatiko askok funtzionatzeari laga zioten, baina astelehenerako makina guztiak ohi bezala funtzionatu zuten.

Peio Ansola 'Gatito' elgoibartarra atxilotu dute

Joan den ostegunean Jose Luis Ansola 'Gatito' elgoibartarra atxilotu zuten Hendaia-ko tren geltokian. 'Peio zaharra' goitezenez ezaguna den elgoibartar hau eta bere laguna, Iru-
ne Donamarin, Mugako Poliziek atxilotu zuten Parisen konfinaturik egoteko agindua hautsi baitute. Baionako epailearengana eramanez ondoren, bost hilabeteko zigorra ezarri diote elgoibartarari eta 3 hilabetekoa bere neska lagunari. Konfinazio agindua dela eta, Ansolak ezin zuten Parisetik alde egin eta "egoitza irregularra" izateagatik



atxilotu dute. Iru-
ne Donamarinek zigorra betetzen duenean Frantziar Estatutik erbesteratuko dute. Madrileko Audientziak, berriz, ez du Ansola estraditatzeko agindua luzatu. Espainiar Estatuak 92an eskatu zuen espainiaratzeko agindua baina Frantziak ukatu egin zuen. Gaur egun Ansolak espainiar justiziarekin auzi bat dauka zintzilik ETako komando bati informazioa ematea leporatzen baitiote. Elgoibartar errefuxiatu hau 1966 urtean joan zen erbestera. Lannemezan-eko gartzelan hainbat urte egin eta gero Parisen konfinatu zuten.

● **Jorge Fernández intsumituaren epaiketa**

Atzo, hilak 26, Jorge Fernández intsumituaren epaitu behar zuten Donostiako Auzitegian. Baina jakin dugunez, Jorge ez zen auzitegi-
ra joan. Gazte Asanbladaren ustean, "horrelako epaiketak fartsa bat dira aurrez erabakita baitago sententzia. Dagoeneko ez da 'hiritarra' izango. Arau militarista eta zapaltzaileei uko eginez, gizarte solidario baten alde borrokatzen dugun gazteei ezartzen zaigun zigorra baino ez da". Honen aurrean, Elgoibarko Gazte Asanbladak idatzi bat bidali du

Udaletxera Elgoibarko Udalarari bere burua intsumitu izendatzeko eskatuz. Era beran "ejerzito espainolarekin ez kolaboratzeko" eskatzen zaio, "aurrerantzean erreklutamenturako herriko gazteen zerrendak emateari uko eginez". Alkateak, hala ere, "gure eskara ez ikutzea erabaki du. Koldarkeria hutsa". Epaiketa hau salatzeko Gazte Asanbladak deituta, manifestazioa egin zen atzo, osteguna. Gaur, hilak 27, "Jeremiah Jhonson"en kontzertua izango da Gaztetxean. Bihar, berriz, arratsaldeko 18:00etan hasita, intsumituen atzetik dabilen martxa militarren parodia egingo dute.

I. URTEURRENA



1997ko martxoaren 1ean, 33 urte zituela hil zen NIEVES ASTIGARRAGA URIAren oroimenez URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 19:30ean. Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA



1998ko otsailaren 22an, 75 urte zituela hil zen ISIDRO OSORO ARANOren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gazte Asanbladaren protesta Irak-eko eraso mehatxua dela eta

Irak-eko inbasioaren oihartzunak Elgoibarreraino iritsi dira. Gazte Asanbladak Irak-eko herriari iragarritako eraso militarra salatu nahian, Olasoko industrialean kokatzen den SIS-FLE S.A. enpresako sabaitik pankarta bat zintzilikatu zuten. Gazte Asanbladak kaleratutako esku-orri baten arabera, "SISFLE enpresak Erasorako Europar Hegazkinaren produkzio injinerutzan parte hartu du, tartean hegaldirako direkzio sistemarako piezak, postkonbustio sistemarako eta lurrartze-ko tresnietarako piezak egin dituelarik. Programa honen barruan 300 milioiko kontratuen zain dago eta CASA, SENER eta GAMESA enpresen ohiko subkontratista da. Azken enpresa hau, Gasteizen kokatua dagoena, Estatuko armagintza eta munizio sektorean nagusietarikoa da.



Piropo, maitasun deklarazio eta abesti lehiaketa AEK euskaltegian

AEK-k San Valentín aitzaki hartuta, euskal piropo, maitasun deklarazio eta abestien lehiaketa antolatu zuen. Piroporik onena Eli Horcas-en hau izan zen: 'loreak udan ihintza bezala maite zaitut!'. Maitasun abestietan Amaia Revert-enak irabazi zuen, Mikel Markez-en "Oianone" kantuan oinarritutakoa. Maitasun deklarazioetan, berriz, Antonio Gómezena aukeratu zuten. Hona hemen deklarazioa: "zure begiak argi bi dira gaueko iluntasunean/erabat galdurik sentitzen naiz zu falta zarenean/irri goxo hori beharrezkoa dut unerik tristee-nean/ilargia gau beltzean, eguzkia ekaitz denean/nire bizitza, zu gabe maitea, galtzen da ezerezean/zuretzat leku bat dago nire bihotz barrenean". Argazkian, Eli Horcas eta Amaia Revert.

Goardia Zibilen mihaketa tabernetan

Astearte arratsaldean eta asteazken goizean, Goardia Zibila herriko zenbait tabernetan sartu zen kontrabandoko tabakoaren bila. Jakin dugunez, Lojantzi, Lanbroa, Oraiko, La Masia eta besteren batean ere sartu ziren. Tabernetako txoko eta zirrikitu guztiak mihatu zituzten baina ez omen zuten kontrabandoko tabakorik topatu.



Kontzertuak Gaztetxean eta Malape tabernan

Amaitu berri diren ihauerietako ohiko ekitaldiez aparte, Gaztetxean ere egon da zer entzun. Pasa den ostiral gauean "Katulu", "Parasma" eta "Mutilated soul" taldeek jo zuten. Goiko argazkian azken talde hau, talde elgoibartarra, ageri zaigu. Zapatu gauean, berriz, Filobiblion Sound Sistem DJren saioa eta "Skunk"en kontzertua izan ziren. Bestalde, ihauerietako astearte gauean, Malape tabernan musika emanaldia izan zen herriko hiru gazteren eskutik. Iban Urizar, Patxi Zabaleta eta Julian Segundok musika ulertzeko eta interpretatzeko modu asko egon daitezkeela erakutsi zuten. Beheko argazkian ikus daitekeen modura, eszenifikazioa ere asko zaindu zuten.



● **Administrari lanpostua Kultur Etxerako**

Kultur Etxerako Administrari Laguntzaile lanposturako deialdia egin du Elgoibarko Udalak. Aipaturiko lanpostua behin-betikoa da, hau da, izaera finkoa du. Oinarriak otsailaren 19ko Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu ziren eta eskariak aurkezteko epea 1998ko martxoaren 11n amaituko da.

● **Salaketa eta infrakzio gutxiago jaso zituen Udaltzaingoak 1997an**

Elgoibarko Udaltzaingoak 1997an burututako jardueren berri eman du. 1996ko datuekin konparatuz gero, salaketak eta infrakzioak dexente jaitsi direla ikus daiteke. Esate baterako, 1996an 1.743 isun jarri ziren trafiko infrakzioengatik eta iaz 1.647. Udal ordenantzen hausteak 299tik 246ra jatsi ziren 1997an. Iaz 43 zirkulazio-istripitako dilijentziak egin behar izan zituzten eta 1996an 68. Era berean, 1997an garabiak 14 ibilgailu eraman zituen Elgoibarko kaleetatik eta aurreko urtean 23. Iaz lapurketengatik egindako 37 salaketa jaso ziren Udaltzaingon, eta beste 59 ebasketa.

PP eta HB alderdiak, OTAren aurka

Egunotan pil-pilean dabilen gaia dugu OTA. Horren haritik, Txankakuak herritarren sinadurak jasotzeari ekin zion eta hainbat alegazio ere aurkeztu dira Udaletxean OTA jartzearen kontra. Era berean, PP eta HB alderdiak ordenantza berrien aurka azaldu dira.



OTAren kontrako kexak etengabe ari dira agertzen.

Juan Carlos Abian, PPko zinegotzia OTAren aurka azaldu da. Bere hitzetan, “autoa aparkatzeagatik zirkulazio zerga ordaintzen dugu”. Abianek esandakoaren arabera, “OTA ilegal da”. Are gehiago, “herritarrek 1.300 sinadura eta 150 alegazio aurkeztu dituzte OTAren kontra. Nik uste dut garbi geratzen dela elgoibartarrak aurka daudela eta Udaleko ordezkariok eta alkateak sentsibilitatea izan behar genuke era honetako erantzun sozialen aurrean”.

Bestalde, Juan Carlos Abianek beharrezkoa ikusten du Udaltzaingoko bulegoan arratsalde batedonbat egotea herritarrek izan ditzaketen galdera, arazo edo zalantzak argitzeko. “Gaur egun, gehienetan ez da inor egoten eta tinbrea dagoen arren, herritarrek zain egon behar izaten dute norbait noiz agertuko. Izan ere, udaltzainek ezin dituzte bi gauza batera egin eta beharrezkoa ikusten dut pertsonaren bat bulegoetan izatea. Herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetuko litzateke”.

HBk OTAren kontrako alegazioak aurkeztu ditu

Elgoibarko Herri Batasunak jakitera eman duenez, OTAren kontrako hiru ale-

gazio aurkeztu ditu. Alderdi honen esanetan, “ez dugu uste OTAk irtenbidea eman go dionik herrian dagoen trafiko arazo eta aparkaleku eskasiari, alderantziz, herritar asko kaltetua aterako da. Izan ere, kontuan hartu behar da Supermerkatu handien etorrerarekin doaneko aparkaleku ugari jarriko dituztela eta herriko komertzio txikiak ezingo dute horrekin konpetitu, are gutxiago OTA jartzen bada herrian”. Honen aurrean Herri Batasunak hiru alegazio aurkeztu ditu. Alde batetik, OTari buruzko ordenantza bertan behera geratzea eskatu dute, Txankakuak aurkeztutako 1.300 sinadurei eta auzokideek aurkeztutako alegazioei bizkarra eman gabe. Bestetik, herri barruan lur azpian aparkaleku publikoak egiteko ikerketa teknikoak egitea eskatu dute eta horretarako Aita Agirre plaza, Leku-Eder edo Trenbide kalea proposatzen dituzte, “Kontserbatorioa egiten hasi dira eta bertako sotoa gaur egun garajeek osatzen dutenez, Aita Agirre eta Leku-Eder-eko lur azpiko aparkalekuen irteera egokia eta naturala izango litzatekeela uste dugu”.

ESKERTZA

1998ko otsailaren 20an, 85 urte zutuela hil zen LUCIA URIA LOYOLAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



kiliBARREN

Otsailaren 28a
45. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



Beste urte batez ere iritsi eta pasatu dira arropak armairutik atera eta norberaren itxura ordu batzuez aldatzeko egunak. Honako argazki honek garai batean ihauteriak nola ospatzen ziren erakusten digu. Orduan ohitura zen ihauterietako aste bukaeran mendira joan eta meriendatzea. Sasiko-potzu izenez deitzen zen jaia eta

mendira joaten ziren Francoren garaian debekatua zegoelako mozorrotzea. Argazkia 1965. urte ingurukoa da eta gaur egun ospitala dagoen toki inguruan, Kukun dago aterata.

Ezkerretik hasita: **M. Jesus Azpiazu, Jose Mari Garate, Juan Jose Eizagirre, Jesus, Jose Maria Ansola, Jose Luis Urbieta, Roke Arriola, Mari Karmen Zulai-ka, Itziar Lazkano, Maria Angeles Zabaleta, Maritere Garate, Jose Antonio Zabaleta** eta **Juan Garate**.

Bizkotxogintzaren ohitura



Bizkotxoak izan dira txokolatearekin batera herrian bertan eta baita kanpoan ere arrakasta gehien izan duten produktu mendarotarrak. Bizkotxogintzaren ohitura oso zaharra da, 1845. urtean ere egiten baitziren. Azken “bizkotxerak” Juana Elorza eta bere alaba, Rosa Urain izan ziren. Orain, ordea, tradizio hori berreskuratzeko asmoz DEBEMENek ikastaro bat antolatu du mendarotarrek bizkotxoak egiten ikas dezaten.



Mendaron oso zaharra da bizkotxoak egiteko ohitura. Izan ere, ez dakigu noiz egin ziren lehenengo aldiz bizkotxoak baina jakin, badakigu, 1845 urterako egiten zirela. Urte horretan Isabel II.a Espainiako erregina zenak, Euskal Herriko probintzietan zehar egin zuen bira batean, Mendaro bisitatu eta bertako sakristauak, beste inor ausartu ezenez, bizkotxo batzuk eman zizkion.

Azpilgoeta eta Garagartza auzoetan

Bizkotxoak egiteko hiru osagai behar dira: arrautzak, azukre piska bat eta irina. Hauxe gain ezinbestekoak dira egurrezko labea (honek ukitu berezia ematen die) eta kobrezko galdarea (metalezkoa izanez gero masa ez baita nahikoa sendotzen).

Hasiera batean Azpilgoetako auzoan egiten ziren, gaur egun Emeterio taberna dagoen parean. Garai honetan Paula Arreitunandiak egiten zituen. Ondoren, Garagartzako auzoan ere hasi ziren bizkotxogintzan. Hemen Marcela Osorok (Martxenaren alabak) hamalau urte zituela, amari laguntzen ha-

si eta bizkotxogintzari ekin zion. Marcelak 80 urte izan arte jarraitu zuen. Handik urte batzuetara Azpilgoetan bizkotxoak egiteari laga zioten eta ordutik 1992. urtera bitartean Garagartzan jarraitu zuten ohitura.

Azkenengo bizkotxogileak Juana Elorza eta Rosa Urain izan ziren. 1982. urteko udaberrian hartu zuten Marcela Osororen eskutik errelebua eta 1992. urtera arte jardun zuten, garai hartan lokal eta labe arazoak tarteko, bizkotxogintzari laga behar izan ziotelarik.

Marcelak bere gazte denboran astoa hartu eta batera eta bestera ibili ohi zen bizkotxoak partituz. Erromeria ugaritara joaten zen bizkotxoak saltzera. Noizean behin opilak eta “jotakoak” (erroskila modukoak baina handiagoak) egiten zituen eta, esate baterako, Larraskanda eta Madarixako erromerietan asko saltzen omen zituen. Urberuaga eta Altzolako bainuetxeetan ere oso ezagunak ziren Marcelaren bizkotxoak. Sarri, ostatu hartzera joan izan zirenek gosaltzeko bizkotxo egin berriak izaten zituzten mahai gainean. Tren geltokira ere askotan joaten zen Marcela eta han, trenak gurutzatzen zirenean, astia izaten zuen bezeroei bizkotxoak saltzeko. Bezero asko ohikoak izaten ziren eta Mendarora iritsi orduko prest izaten zuten dirua Marcelari emateko.

Azken bizkotxogileen salmentak gora joan ziren urtetik urtera. Egunean ehun dozena inguru egiten zituzten hasieran eta salmentek gora egitean produkzioa ere gehitu egin behar izan zuten. Elgoibarko Maite, Murua eta M. Jose gozodendentan bizkotxo asko saltzen ziren baita Eibarko Antxon gozodendan eta Donostian ere.





1992. urtea benetan oparoa izan zen Mendaroko bizkotxogileentzat. Izan ere, feria batera joanak ziren Rosi eta Juana bizkotxoak saltzera. Bertan erroskilerok batzuek eskaintza bat egin zioten Mendaroko bizkotxoak Euskal Herriko feria guztietan saltzeko aukera emanaz. Mendarotarrek proposamena onartu zuten eta eguneko 200 dozena egitera pasa ziren. Bien bitartean erroskilerok Santander eta Arabako herri askotara iritsi ziren gure herriko bizkotxoak salduz eta beraien ospea zabalduz.

Hasiera batean lana oso neketsua

zen ez baitzuten aurrerapen teknikorik bizkotxoak egiteko. Labeek beti egon behar zuten berotuta eta horretarako pertsona bat goizean goiz jaiki behar zen labea piztera. Arrautzak ere eskuz irabiatzen zituzten eta luze joaten zen. Egun askotan goizeko 8etan hasi eta gueko 9ak arte jarduten zuten.

Bizkotxoak egiteko kobrezko galdara erabiltzen zuten, lehentxeago aipatu dugun bezala. Urteen poderioz galdara gastatzen hasi zen eta berria behar zuten. Asko kostatu zitzaizen berria bilatzea oso leku gutxitan egiten zituztela-

ko, baina azkenean lortu zuten bat eta bizkotxogintzan jarraitu ahal izan zuten.

Bizkotxogintza berreskuratzeko ikastaroa

Antzinako ohiturak galtzea beti da penagarria. Hau dela-eta, DEBEMENek bizkotxogintza berreskuratzeko ikastaroa antolatu du eta herritarren artean erantzun oso ona izan du. Hasiera batean ikastaroa Deba Beheko herritarrentzat zuzendua bazegoen ere, azkenean Mendarokoentzat bakarrik izatea erabaki zen. Honen arrazoia nagusia, Asier Albizuren hitzetan, "helburua tradizioa mantentzea izanik, lojikoena mendarotarrek ikastea zen, bestela Mendaroko bizkotxogintza ez litzateke gauza bera izango".

Bizkotxogintza ikastaroa amaitu da dagoeneko eta hastear dago ogia egiten ikasteko beste ikastaro bat. DEBEMENek garai batean ikastola izan zen Linazasoroko edifizioan lokala egokitu du epe motzera bertan bizkotxoak egin ditzaten. Proiektua aurrera eramateko 8 milioi pezetako aurrekontua dago eta sei miloi lokala eraberritzeko. Lokal honetan bizkotxoaz gain ogia ere egingo litzateke.



Pili Landa
30 urte
Arboletako
tabernaria

- Zergatik hasi zinen Mendaroko bizkotxoaren ikastaroa? - Enterau nitzanian Mendaroko bizkotxoak egiten ikasteko ikastaroak jarri zitxuela gogua sartu jatan, tradizio bat berreskuratzia baita, eta bizkotxoak eitzen ikastia ere interesgarria iruditu jatan.

- Zaila al da bizkotxoak egitea? - Bai, oso zaila da. Praktika haundia bihar da eta edozeinek ezin ditxu ein, truko ugari dakazelako eta hoiek ondo menderatzeko, praktika haundia bihar da. Teorixan badirudi nahiko erretza dala, baina praktikan gauzak oso bestelakoa da. Lehenenguetan masia itxen

hasi ginanian, erraza ematen zaban. Osagaiak ere ezin dia edozelakuak izan. Gainera, hain erreza balitz, edozeinek in ahalko litxuzke eta ez litzake berdin izango.

- Zein da elaborazioaren pausorik zailena? - Batez ere masia papelea botatzia, borobila erten bihar dabalako

puntaripe... eta baitxa bainu zurixa ematia ere, zikuegixa edo ertetzen bada oso zaila da nahi bezela ertetzia. Bere puntuan eon bihar da.

- Ba al duzu Mendaron sortu behar den bizkotxotegian parte hartzeko asmorik? - Ez, ze tabernako lanak denpora asko kentzen dia eta ez neuke astirik eukiko. Gainera, ogixa ere in biharko da. Beraz, egun guztixa dedikau biharko zako.

- Merezi al du horrenbeste diru gastatzea ohitura zahar hau berreskuratzeko? - Bai, ze Mendaroko edozein ohitura zahar berreskuratzia pozgarria da.

- Zer izan da ikastaroko gauzarik onena? eta txarrena? - Oena gure arteko giroa eta bizkotxoak onak irtetzea, jateko ere onak egoten ziala. Txarrena, berriz, Elgoibar-raino jun biharra ikastaroa bertan baikenuen.

- Bizkotxoak bakarrik egin al dituzue? - Ez, bizkotxoez gain opil ederrak eta erroskilak ere in zitxugun.

- Saiatu al zarete etxean egiten?

- Bai, bi aldiz. Batian labe elektrikuak eta bestian labe elektrikuakin eta gasekuakin baina ez dia ondo irtetzen, zabaldu eitzen dia eta papel bakoitzian jartzen dian seirak juntau eitzen dia haundi bakar bat sortuz. Hala ere, jateko gozua gelditzen da. Baina bihar-biharrezkua da egurrezko labia.

❖ Bisitaldia Bilboko Guggenheim museora

Datorren asteazkenean, martxoak 4, Mendaroko jubilatuek Bilboko Guggenheim museoa ikusteko aukera izango dute. Irteera goizeko 9:00etan izango da Estazio aurretik. Bidaiaren prezioa 3.000 pezetakoa izango da eta bertan sartzen dira "Costa Vasca" jabetxean bazkaria eta museorako sarre- ra gidari eta guzti. Astelehenetik aurrera dago aukera izena emateko arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak arte Jubilatuen Biltokian. Irteera "Lagun Beto- koak" Jubilatu Elkarteak antolatu du.

❖ 1998ko Udal Aurrekontua 140 milioikoa da


Urtarrilaren 29an egindako Udal bil- kuran 1998. urteko Udal Aurrekontua onartu zen. Hona hemen laburbilduta:

Pertsonal gastuak .24.994.000 pta.
Gobernuko organoak 4.965.000 pta.
Zor publikoa 10.895.000 pta.
Ekonomi-industri garapena (DEBEGESA) 1.000.000 pta.
Gizarte zerbitzuak, Jubilatuen Elkarte eta Osasuna 7.080.000 pta.
Etxebizitza eta Hirigintza (Herriko enparantza etab.) 30.100.000 pta.
Zerbitzu publikoak, saneamendua, ur hornidura eta hilerriak 27.024.000 pta.
Nekazal azpiegitura (DEBEMEN, baserrietako obrak etab.) 9.400.000 pta.
Dirulaguntzak etekinik gabeko elkarreentzat 2.000.000 pta.
Kultur eta Kirol ekintzak (Euskal Bizikleta, etab.) ... 8.906.000 pta.
Hezkuntza (San Jose ikastetxea, Gizarte bermerako moduloak, haurrentzako igeriketa kanpaina etab.) ... 4.726.000 pta.
Herriko jaiak 5.000.000 pta.
Euskara 1.500.000 pta.
Ekain II proiektua . 1.600.000 pta.
Kontzezio azoka ... 1.000.000 pta.
GUZTIRA 140.190.000 PTA.

Aingeru Guardako jaiak

Datorren igandean, martxoak 1, Aingeru Guardako jaiak izango da. Goizeko 9:00etan eta 12:00etan meza izango da Aingeru Guardako ermitan. Eguerdiko 12:30ean Herri Kirolak izango dira Mintxeta eta Florentino trontzalariek, Jon eta

Josu oskol biltzaileek, Agirre eta Lazkano bertsolariek eta Ospas eta Xabin trikitilariek hartuko dutela- rik parte. Arratsaldeko 14:30ean bazkari herrikoia egongo da Aizpe elkartean eta bertsolariak ere izan- go dira.



Karnabalak 98

Dagoeneko amaitu dira karna- balak. Aurtengoak guztiz alaiak izan dira mendarotarrentzat, bere- ziki haurrentzat. Ostiralean Ikasto-

lan jaialdia izan zen eta larunbate- an Detraka animazio taldeak alaitu zuen. Bietan jai giroa ezin hobea izan zen.



Paulo Chagas brasildarra da eta 38 urte ditu. Musika ikasketak egin zituen eta gaur egun, bi koro zuzendu, musika konposatu eta abesteaz gain, Tai Chi Chuan teknikaren irakaslea da eta Tui Na izeneko masaiak ematen ditu, akupuntura modukoa baina orratzekin beharren atzamarrekin egien dena. Azken asteotan gure artean izan da, Brasilen bizi den Iñaki Ansola elgoibartarrarekin etorri baita bisitan. Tai Chi Chuan klaseak eman ditu Elgoibarren eta Alicanten. Datorren astelehenean itzuliko da Brasilerara. Beheko argazkian Paulo ikus dezakegu Tai Chi-ko mugimendu bat egiten.

PAULO CHAGAS

“Tai Chi Chuan-a kamara geldiko karatea da”

– Zeri deitzen zaio Tai Chi Chuan? Arte Martzialen bat al da?

- Bai, baietz esan daiteke. Datu batzuen arabera duela 5.000 urte baino gehiago Txinan sortu zen eta beste batzuek diotenez, berriz, aro glaziarrean ere praktikatzen zen. Kun-fu antzekoa da baina muskulokak landu beharrean barruko indarra lantzen da. Mugimenduak batzuetan musikarekin konbinatzen dira dantza moduko bat izango balitz bezala. Animalien, zuhaitzen, umeen mugimenduak isldatzen dira.

– Eraso eta defentsa mugimenduak dira, ez?

- Bai. Aurkari baten kontra egiten da baina sekula jo gabe. Kamara geldian eginiko karatearen antzekoa da.

– Zerikusirik al du Yoga-rekin?

- Bai. Eragin terapeutiko handiena duten bi teknikak Yoga eta Tai Chi-a dira. Helburuak antzekoak dira kasu bietan baina bide desberdinetan bilatzen dira. Yogak postura estatikoak lantzen ditu eta Tai Chi-ak, berriz, mugimenduak.

– Arnasketa asko lantzen duzue, ez?

- Bai, arnasketa oso garrantzitsua da. Arnasketa osoarekin eta jaio-aurrekoarekin egiten dugu lan. Horren bidez, sistema energetikoa lantzen dugu. Izan ere, energia ondo bideratzen badugu gorputz osoan zehar, gainontzeko organo guztiak egoera onean egongo dira. Estankatua dagoen energia kontrolatu eta aprobetxatu behar da. Mugimenduen energia lantzen dugu.

– Zein dira eragin terapeutikoak?

- Osasunean eragiten

du. Oso ona da estresaren kontra, antsietatea, insomnioa, arnasa eta sabeleko arazoak konpontzen ditu. Arazo batzuk saio bakararrekin senda daitezke, beste batzuek denbora gehiago behar dute baina ia gehienak hiru hilabetera konpontzen dira. Nik izan nuen ikasle bat laranja baten taimainako tumorea zuena eta sendatu egin zena. Ez dut esan nahi mirariak egiten dituenik baina asko laguntzen du. Hori bai, guk ez dugu alde batera uzten medikuntza. Medikuek eta siko- logoekin lan egiten dugu, osagarriak dira.

– Enpresetan ere aritzen zara, ez?

- Bai. Brasilgo enpresa askotatik deitzen didate langileei Tai Chi ikastaroak emateko. Izan ere, hango enpresa askotan egunero ordubete ematen dute langileek Tai Chi-a egiten.

– Nola hasi zinen honekin?

- Osasun kontuengatik. Garai batean hilero-hilero gripea izaten nuen, jateko gogorik ez, sukar handiak... Tai Chi-a egiten hasi nintzen duela 15 urte eta ordutik ez naiz behin ere gaixotu. Nire maisuak Wu Chao Hsiang eta Liu Pai Lin izan ziren, asko zor diet eurei.

– Lehenengo aldiz izan zara Elgoibarren. Bueltatze-ko asmorik?

- Ahal badut, ziur. Oso gustura egon naiz. Askok gustatu zaizkit Elgoibar eta inguruak, oso menditsua da eta benetan jende jatorra ezagutu dut. Gaztelera praktikatzeko aukera izan dut, etorri aurretik ez nekimen ia ezer. Gainera, euskaraz hitz batzuk ikasi ditut eta oso soinu polita duela iruditut zait.

BESTEAK ESANA

“Oso alaia eta aktiboa da eta indar guztia jartzen du maite dituen ekintzak egiten”
IÑAKI ANSOLA, laguna





**Jose Antonio
Urbietta**

Elgoibartar honek duela 18 urte Australiara alde egin zuen familiarekin Elgoibarren zegoen egoera ekonomikoa zela eta.

Ingelesa

izan zen Jose Antoniok Australian topatu zuen eragozpenik handiena. Ikastaroen bidez, telebista ikusiz eta irratia entzunez ikasi zuen ingelesa. Lankideek ere laguntza handia eskaini zioten. Lan aldetik gauzak ez zaizkio batere gaizki joan. Modelista eta ebanista lanetan aritu da eta gaur egun antzinako altzariak egiten ditu.

Hiru alaba dauzka Jose Antoniok. Idoia, Sonia eta Leire, 28, 27 eta 24 urtekoak. Gaur egun bi nagusiak ezkontuta daude eta dagoeneko hiru iloba eman dizkiote. Jakin dugunez, laugarrena bidean omen dator.

Duela bi urte egon zen azkenengoz Elgoibarren, anaiaren hiletan. Jendeak lehen baino euskara gehiago hitz egiten duela iruditu zitzaion baina lan mundua askoz okerrago topatu zuen.

Badakigu Jose Antonio oso erromantikoa eta sentimentala dela. Urtero ospatzen dute Australian Aberri eguna eta ia beti bukatzen du negarrez. Hala ere, ez da Elgoibarrera bizitzera itzuliko. Han gustura bizi dira eta dagoeneko hango eginak daude.



bilbao express
bidaia agentziak
babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

**Josefa Uria
Oñederra
(1901-1984)**



- 1901eko azaroaren 9an jaio zen Elgoibarko Lizundia baserrian, Urruzuno auzoan.
- Sei anai-arreba izan ziren, bera bigarrena.
- Eskola ikasteko aukerarik gabe oso gazterik joan zen Ondarrura denboraldi baterako lan egitera. Geroago, Azkoitiako Aitxola Beheri baserri-ira joan zen eta han maistra bat zegoenez, ikasteko aukera izan zuen lan egitearen truke. Azkoititik bisitak egiten zituen bere jaiotetxera.
- 18 urterekin Azkoitiara joan zen zerbitzu lanak egitera. Hemendik etorrira, urte dexentean etxean laguntzen egon zen.
- 25 urte zituela istripu gogorra eduki zuen pertikia bere gainera erorita. Bizkarhezurra apurtu zuen. D. Ignacio Arrillagak operatu zuen bestela gauza txarra izateko bidea izango zuelakoan. Ohe berezi batean egon zen igeltsuarekin urtebetez eta zorionez ondo saniatu zen.
- Ohitura zuen batzuetan Kurutzeta eta Madarixara erromeriara joatea. 31 urte zituela Lizundia Azpikoa baserriko Jose Galarragarekin ezkondu zen Kortazar baserrira. Bi seme izan zituen. Bere senar Jose igeltseroa zen eta lan asko egin zuen herrian.
- Bost urte inguru baserrian bizi eta gero kalera etorri ziren bizitzera "Anton Diru" deitzen zieten etxeetara.
- Josefa, sinesmen handikoa, Amabirjinaren kongregaziokoa ere izan zen eta San Antonio Urkiolara, Arratera eta abarrera bidaiak egin zituen.
- 1960an, 59 urterekin alargun geratu zen. Ezaguna egin zen herrian eta bere zaletasunen artean gogokoa zuen kartetan jokatzea, euskal kantak, trikitia eta punto lanak egitea.
- Josefa emakume alaia eta hizlaria, bere gorabeherak pasata, 1984ko maiatzaren 26an hil zen, 82 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Truk

**San Frantzisko, 27
Tel. 74 26 21**

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

INTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



A

Argazki hauek **Juanito Etxaniz**ek ekarri dizkigu. Oraindik karnabalen oihartzuna gertu xamar entzuten denez, 1928 urteko ihauterietako bi erretratu hauek argitaratzea erabaki dugu. Ihauterietako igandean daude aterata biak,

egun berean. Bat, Nafarroa plazan, Kultur Etxearen aurrean, eta bestea, tren geltokian.

Argazkikoak Lagun Onak estudiantinakoak dira. Ihauterietan argazkian agertzen den karroza edor horrekin ateratzen ziren. Juanitok berak esan digun bezala, estudiantina kalean zetorrenean honako hau abesten zuen jendeak: "Ya viene la estudiantina y la orquestina..."





“Beste kirolek kalte haundia eitzen diote pelotari”



Joseba Arrillaga

- **Adina: 15**
- **Pilota biziak ala motelak?**
Entrenau ezkerro bizixakin hobeto ibiltzen naiz.
- **Zaletasunak: Ehizia eta futbola.**
- **Bizio bat? Telebisua ikustia.**
- **Profesionalik gogokoena? Elkoro**

- **Noiztik zabilta esku pilotan?**
- Sei urtekin hasi nitzan. Aitxa pelotazalia da eta... Geruo entrenatzen hasi nitzan.

- **Noiz hasten da denboraldia?**
- Gipuzkuako txapelketa bat izaten da lenengua. Taldetan dao banatuta eta ligilla modura jokutzen da. Momentu honetan Gipuzkoako Diputazioko txapelketa eta Deba Beheko bat ari gera jokutzen, txandaka. Herri arteko txapelketia ere jokutzen dou eta noizian behin inguruko herrixetan txapelketa txikixak.

- **Txapelketarik irabazi duzu?** - Hiru urteian Deba Beheko txapelketako finalera iritsi izan naiz. Azkenenguan txapelkunak izan ginan. Ostian hamengo txapelketetan gauza handirik ez, beti tokatu izan jata katarruak eta holakuak.

- **Kadeteetan zaude, ez?** - Bai, eta egixa esan, sasoirik txarra da. Esaten da ointxe dala mejorixia eitxeko momentua. Sasoi txarra da ze partido mordua galtzen dia. Ointxe ikusten da pelotarixa datorren ala ez.

- **Eta zuk, nola ikusten duzu zure burua?** - Ez oso ondo. Asti handirik ez dot eukitzen. Nahi baino gitxixo ibiltzen naiz. Batetik, ikasketak diala, eta bestetik, zure lagunak batzuetan ezin dau egun batian entrenau...

- **Bikote berarekin ibiltzen zara normalean?** - Ez da fujua izaten. Oin batekin ari naiz, Asier Uberakin eta beste batzuetan Elgoibarrera entrena- ztera etortzen dan Mutrikuko batekin.

- **Bikotearen arteko konpen- zioa inportantea izango da.** - Bai, ni atzelarixa naiz eta zure parejiakin konfiantzia bihoku, pelotak eskatzeko eta hori dana. Inportantia da elkar ezagu- tzia, bere gaitxasunak, trebetasunak,... bestela tantu asko galdu leikez.

- **Zeinek eroaten du partiduko pisua?** - Normalian atzelarixari ataka- tzen jako. Atzelarixa ahalegintzen da pelotia goitikan kentzen aurrelarixak ez hartzeko. Askotan kanpora juten ge- ranian, ohitxu gabeko frontoietan pelo- ta azkarrak jartzen ditzue, eta piskat zaila izaten da. Mota guztietako pelo- tekin jokutzen ohitxu bihar da ze bes- tela partido askok eitzen dabe ihes.

- **Eskuekin arazorik?** - Ointxe minduta dakat eskumako eskua. Pelota bizixak takarruak izaten diaz eta eskua gehixo mintzen da. Kasu hauetan eskua takuekin kubritzen da mindutako tokixa libre lagata. Problemia da ez jakola pe- lotiari nahi beste indarrekin ematen.

- **Pilotari gazte asko zaudete El- goibarren?** - Gaztetan jende asko ego- ten da baina gero futbola dala edo esku- baloia dala, laga eitzen dabe. Beste kirolek kalte handia eitzen diote pelotari.

- **Profesional izatearekin amets egiten duzu?** - Profesioaletara salto eitxia oso zaila. Oso ona izan bihar zera eta egixa esan, ez naiz profesioaletan ikusten. Hala ere, ez dot sekula pelotia lagako, hori argi dakat.

ESKOLARTEKO JOKOAK

AGENDA (Otsailak 28, larunbata, 13. jardun.)

ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak (Mintxetan)** ■
9:45 Ikas Gol - Pilar Flash
10:30 Pilar All Star - Mendaro B
11:15 Herri Boomerang - Ikas Espabidubi

- **Aleb. nes. (Herri Eskolan)** ■
10:30 Herri Argi - Ikas Trumoi
11:15 Pilar Kas - Ikas Laino
12:00 Pilar Girls - Ikas Planet

SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak (Ikastolan)** ■
11:15 Pilar Ajax - Perraubekoak
12:00 Ikas Otsoko - Ikas Bolita
- **Infantil neskak (Urasandin)** ■
10:30 Pilar Mix - Blablatarrak

SASKIBALOIA 3X3

- **(Pilar ikastetxean)** ■
11:00 Pilar A - Pilar B
11:45 Basati A - Basati B

ESKUBALOIA

- **Benj. mutilak (Kiroldegian)** ■
9:30 Ikas Bulls - Herri Otsokak
10:00 Pilar Lakasitos - Ikas Bihurri
10:30 Mendaro A - Ikas Gorri
11:00 Pilar Bulls - Ikas Tximista
- **Benj neskak (Kiroldegian)** ■
11:30 Ikas Hartz - Ikas Beleak
12:00 Ikas Ortzadar - Ikas Bizkor
12:30 Pilar Txiki - Pilar Usoak

KIROL ALBISTEAK

● Sei domina irabazi dituzte judoan Ibai Kiroel Elkarteak

Joan den zapatuan Gipuzkoako Eskolarteko Judo Txapelketako bigarren ekitaldia jokatu zen Arrasaten. Alebin eta infantil mailetan parte hartu zuten Ibai Kiroel Elkarteak judoak eta emaitzak onak izan ziren, urrezko bost domina eta brontzezko 1 lortu baitzituzten. Infantiletan Maialen Morak eta alebinetan Aitor Mugerzak, Roberto Pazmiñok, Zuriñe Polok eta Maria Idiakezek eskuratu zuten urrea. Fernando Pazmiñok, berriz, brontzezko domina irabazi zuen, infantiletan baita ere. Sei elgoibartar hauek martxoaren 14an Deban izango den Eskolarteko beste lehiaketa batean izango dira. Emaitza bera lortuz gero martxoaren amaieran Donostian jokatuko den finalean parte hartzeko aukera izango dute.

Ligako txapela lortu dute eskubaloiko jubenil eta kadete neskek

Bi taldeak Euskal Ligara igo dira

Kiroldegiko kan txaren berrinagurazio egunean, hilaren 15ean hain zuzen, jokatu zuten Pagoaga taldeko jubenil neskek ligako azken partidua. Unce-ta taldeko kadete neskek ere egun berean izan zuten azken partidua. Bi taldeak zarauztarren kontra aritu ziren, partiduen emaitza elgoibartarren aldeko izan zelarik. Hala ere, azken partidua ez zen liga irabazteko erabakiorra. Bai jubenilek bai kadeteek lehenagotik zeukaten ziurtatuta ligako lehen postua. Liga irabazteaz bat, mailaz igo dira elgoibartarrak. Izan ere, aurrerantzean Euskal Ligan jokatu dute.

Bestalde, asteburuan hasita, Federazio Kopako partiduak jokatzeari ekingo diote. Kopako txapelketa Aste Santura arte luzatuko da.



Pagoaga taldeko jubenilak. Entrenatzailea: Ales Arrieta.



Unceta taldeko kadeteak. Entrenatzailea: Igor Lizarralde.

azkue

azkue

EMAITZAK

Futbola

Barakaldo 1 - Haundi 2
Cruces 3 - Elgoibar 0 (E. L. jub.)
Elgoibar 4 - Gazteak 1 (1. jub.)

Eskubaloia

Pneumax Elgoibar 19 - Arrate 9 (Kad. mut.)
Pneumax Elgoibar 20 - Sercoin 25 (Kad. mut.)
Tecnomeca Elgoibar 15 - Arrate 20 (Jub. mut.)
Tecnomeca Elgoibar 29 - Sercoin 31 (Jub. mut.)
Hernani 20 - Elgoibar 20 (Seniorrak)

Areto futbola

Elgoibar 1 - Aiako 2 (1. maila)
Elgoibar 3 - Txanela 1 (Auton.)

Idarraga Kafeak I. Saria

C.D.ko jokalarri erregularrena 97/98

Jokalaria	Puntuak
1- Eneko Barrenetxea	32
2- Miguel Díaz	29
3- Gorka Guarrotxena	26
4- Iker Atxabal	23
5- Gaizka Lazarobaster	19
6- Ander Iruretagoiena	19
7- Jabier Gurrutxaga	19
8- Koldo Agirregomezkorta	19
9- Karlos Madina	15
10- Joseba Igartua	15
11- Unai Aranburu	14
12- Xabier Alonso	12
13- Mikel Elkoro-Irube	9
14- Igor Prieto	11
15- Jon Argoitia	9
16- Aitor Trebiño	8
17- Mitxel Badiola	7
18- Aiert Zinkunegi	5

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 28
12:15 Pedrusko - Alde Zaharra (2. erreg.)
16:45 Haundi - Osasuna
18:30 Elgoibar - Aurrera Ondarroa (2. erreg.)
Igandea, 1
16:30 Elgoibar - San Inazio (E. L. jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 28
16:00 Pagoaga Elgoibar - Hernani (Jub. nes.)
17:30 Elgoibar - Urnieta (Seniorrak)

KIROL ALBISTEAK

● Mintxeta taldeko korrikalariak, Hernaniko krosean

Mintxeta Atletismo Taldeko alebin eta infantil mailetakoko neska-mutilek Hernaniko krosean hartu zuten parte hilaren 15ean. Alebin nesketan Dorleta Aranberri eta Nerea Zubiaurre 12. eta 13. postuetan sailkatu ziren hurrenez hurren. Alebin mutiletan Julen Merino bigarren geratu zen eta Aitzol Urain 52. lekuan. Azkenik, infantil nesketan, Ana Etxaniz eta Nuria Revuelta 10. eta 24. lekuetan sailkatu ziren.

● Igeriketa Taldekoen martxoeko zozketa

Olaizaga Kiroldegiko Igeriketa Taldeak martxo osoan zehar sarituko diren errifak saldu ditu. ONCEK egunero egiten duen zozketaren azken hiru zenbakiekin bat datozen errifek sari hauek jaso dituzte: astegunetan 1.000 pta.ko saria. Ostirala bada, 2.000 pta. eta hileko azken ostiralean 5.000 pta. Sariak jaso-tzeko Olaizaga Kiroldegiko bilera gelatik pasa daiteke egunero arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Ateak/belarriak
ireki

Itxoiten... esperando... waiting... edozein hizkuntzatan, anitz taldek disko berria ateratzeko luzatzen duten epea izendatuz pasatzen ditugu egunak. Are gehiago, lehen diska ikaragarria izan ondoren, bigarren diskak dakarren irudia handiagotu egiten da. “Pequeñas puertas que se abren y pequeñas puertas que se cierran” izeneko diska atera du Gijonen finkatutako **Manta Ray** taldeak. Ebo-luzio nabarmena jasan ondoren eta lehen diskak ernaltzen zituen une tristeak albo batera utziz, aberastasunez marrazten dituzten paisaia intimistak areagotu dituzte. Perkusio, theremin eta sintetizadoreak gehitu dizkiote beraien infernu goibelduari, sensazio ezberdinetatik pasazten gaituzten bitartean. Nahiz eta abeslariak ahots ikaragarria eduki, beste instrumentuen menpean jostatzen da espiral korapilatsu batean murgildurik. Lehen entzumenak gidatuz, berotasun piska bat galdu dutenaren sensazio zakar bat egin daiteke, baina behin sartuz gero, mementu ahaztezinak pasaztea lortzen dute. Honegatik eta Come taldearen laguntza lortzeagatik, hiru txalo... Hau bai dela atea irekitzea.... e, Fermin?

Iban Urizar eta Julen II



EUSKAL IHAUTERIA

Ikuskizun polita eskaini zuten
Haritz Dantzari Taldeak eta Mauxitxak

Eguraldiak mehatxu egiten bazuen ere, azkenean portatu zen. Ihauteriako zapatu iluntzean, Haritz Dantzari Taldeak eta Mauxitxa txarangak eskaini zuten Euskal Ihauteria amaitu baino pare bat minuto lehenago hasi zen euria gogoz. Ordura arte, xirimiria baino ez. Ordu eta erdiz luzatu zen Euskal Ihauteriaren kalejira eta benetan ikuskizun polita izan zen. Kaleak dantzan zeharkatu zituzten, eta Plaza Handian, Nafarroa plazan eta Madalan dantza saio luzeagoak eskaini zituzten. Jendea tropelean pilatu zen dantzariak ekinean ikusteko. Jantzien ikusgarritasuna agerikoa zen eta 60 dantzariaren jardun txukuna apreziatzen jakin zuten herritarrek txalo erreka beroekin. Kalejira Plazako arkupeetan amaitu behar izan zuten euria hasi baitzen. Jose Inazio Sarasua Haritzeko zuzendariak oroigarri bat jaso zuen Jose Alberto Ansolaren eskutik Mauxitxaren izenean. Haritzekoek, berriz, zuzendari makila eman zioten Mauxitxako zuzendariari.

Bestalde, Haritzen 25. urteurrena dela eta, Enrike Izagirre irakasle eibartarrak eta Haritzeko partaideak, hitzaldia eman zuen astelehen iluntzean. 40 bat lagun elkartu ziren Kultur Etxeko hitzaldi gelan eta mitologiaren inguruko kontakizunak izan ziren saioaren ardatz. Izan ere, hartza eta gizakiaren arteko kondairei buruz egin zuen berba eibartarrak.



Kalejiraren ostean oroigarriak elkartrukatu zituzten Haritz Dantzari Taldekoek eta Mauxitxa txarangakoek.



Hartzari buruzko ipuinak kontatu zituen Enrike Izagirrek.



Argazkilaritza

CHARI GOMEZ

21 urte dituen elgoibartar gazte hau argazkilaritza ikasketak bukatzeaz dago, orain kurtso amaierako proiektuan sartuta baitabil buru-belarri. Chari Gomez lehenengo jauntzeari argazki kamera bat oparitu zioten eta ordutik, etxetik kamerarik gabe ateratzen ez dela esan daiteke.

- Ilargi akademian urtebete egin eta gaur egun Soslain zaude.

- Bai, *Ilargin* egon nintzenezan, Bilbon, bi hilabeteko hiru ziklo egin nituen eta Soslaikoa bi urteko ikasketan dira gehi beste sei hilabeteko proiektua egiteko daukazuznak.

- Adarren batean espezializatu al zara?

- Mementu honetan denetik egiten ari naiz. Hala ere, aukera izango banu modari buruzko argazkigintza da gehien erakartzen nauena. Modeloekin lan egitea, pasarella, publizitatea... Argiekin lan egitea... Hori bai, badago beste adar bat izugarri gustatzen zaidana: gerra korrespontsala izatea. Gerra zuzenean bizi eta bertako esperientzia guztiak argazki kamararekin hartzea. Hala ere, konturatzan naiz ez dela batere erraza eta oso arrikutsua dela.

- Zer da akademia batean erakusten dizuten lehenengo gauza?

- Lehenik eta behin argazki kamara ezagutu eta erabiltzen ikasi behar duzu, ezaguna egin behar zaizu eta eskuetan izaten ohitu behar zara. Hortik aurrera errebelatzen

ikasten duzu, argia, objetiboa, estudioko lana, argazkilaritzaren historia, denetik ikasten duzu piska bat. Dena dela, ez dizute gauza gehiegi erakusten oso denbora gutxiko ikastaroak baitira. Benetan gustatzen bazaitzu, zure kontura asko irakurri eta ikasi behar duzu.

- Asko praktikatu behar da, bezaraz.

- Bai, dudarik gabe. Ez baduzu praktikatzen ikasitakoa ahazteko arris-

kua dago eta horregatik, kamara eskuetan hartu eta batean eta bestean edozeri atera behar dizkiozu argazkiak. Zenbat eta gehiago hobea.

- Garestia al da?

- Bai. Egia esan, argazkilaritza gustatzen ez zaion pertsona bati ez nioke aholkatuko ikasketa hauek egitea zeren denbora eta diru asko galduko baititu. Ikastaroak ez dira oso merkeak eta kamarak are gutxiago. Kamara on batek 200.000 pta.tik gora balio ditzake. Atera kontuak. Gainera errebelatua, kopiak beste kontu asko dago.

- Ongarriko kidea zara, ez?

Bai, oso gustura nago. Jende jatorra dago, erakusketak antolatzen direnean jendea ezagutzeko aukera duzu, ikastaroen berri zuzena jasotzen dugu... Oso gustura nago.

- Nola dago lan mundua?

- Uf! Nahiko zaila da kontua. Moda munduan zerbait egitekoartzelona edo Madrileraja joan behar harko nintzateke ikastaro trinkoren bat egitera. Mementuz nahiko zaila da oso garestiak baitira eta lanik ez dudanez... Hala ere, egunen bateanartzelona joateko aukera izatea espero dut. Informatika eta ordenadoreekin ere gauza berriak ikasi nahi ditut. Argi dago argazkigintzan ere berrikuntzak sartu behar direla. Ni behintzat horen aldekoa naiz. Oraindik oso gaztea naiz eta hasi berria, gauza asko egiteko gogo eta ilusioa daukat eta argazkilaritzan, nire lanean ona izatea da nire helburua.



OLASO TABERNA

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

- EGUNEKO MENUAK -
- LARUNBATETAN -
Rabak • Olagarroa • Fritoak
- GAUEZ -
Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

• Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...
• Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKA EZAZU AURREKONTUA
INOLAKO KONPROMEZURIK GABE!

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00etatik aurrera



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua. 744366
 Udak Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udalzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kiroldegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza. 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 HHI. 74 08 80
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea. 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español. 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

A G E N D A

27

ostirala

.....

19:00 GAZTE ASANBLADA
AREN BILERA
 Gaztetxean

22:15 ZINEA
 "Se lo que hicisteis el último verano"

22:30 KONTZERTUA
 "Jeremiah Jhonson"
 Gaztetxean
 Sarrera doan

28

larunbata

.....

18:00 MARTXA MILITARRAREN PARODIA
 Antolatzailea: Gazte Asanblada

19:30-22:15 ZINEA
 "Se lo que hicisteis el último verano"

22:30 KONTZERTUA
 "No más miedos" eta "Miel de hiel"
 Gaztetxean
 Sarrera doan

1

igandea

.....

19:30-22:15 ZINEA
 "Se lo que hicisteis el último verano"

2

astelehena

.....

18:00 BUZTIN IKASTAROA HELDUENTZAT
 Lurkiren egoitzan (Aita Agirre plaza)
 Apirilaren 2ra arte
 Antolatzailea: Lurki Elkarte

18:00 LABEKO ESMALTE IKASTAROA
 Egurren egoitzan
 Hilaren 23ra arte
 Antolatzailea: Egur Arte Tailerra

19:30-22:15 ZINEA
 "Se lo que hicisteis el último verano"

3

astearte

.....

19:00 HITZALDIA
 Gaia: DBHaren aurkezpena eta adin honetako ikasleen berezitasunak
 Arreiturre Institutuko liburutegian
 Antolatzailea: Herri Institutua

4

asteazkena

.....

19:00 HITZALDIA
 Gaia: "Jolas kolektiboek eta lagunek umeengan duten garrantzia"
 Arreiturre Institutuko liburutegian
 Antolatzailea: Herri Eskola

5

osteguna

.....

22:15 ZINE KLUBA
 "Carretera perdida"

6

ostirala

.....

18:30 ODOL ATERALDIA
 P. M. Urruzuno, 8an

19:00 GAZTE ASANBLADA
AREN BILERA
 Gaztetxean

19:00 ESKULTURA ERAKUSKETA
AREN INAUGURAZIOA
 Egilea: Arturo Andrade
 Kultur Etxean
 Martxoaren 27ra arte

22:30 ANTZERKIA
 Antzeztaldea: Maskarada
 Antzezlana: Nerudaren postaria
 Herriko Antzokian



Aranburu

ru
 San Frantzisko, 26
 Tel: 74 25 35

Aranburu bitxidendak zera adierazi nahi die bezero guztiei: Errege bezperan egindako zozketan, lehenengo sariari dagokion txartela, **B SERIEA 4418 ZENBAKIA**, martxoaren 5erako agertzen ez bada, erreterbakoari, **C SERIEA 4.381 ZENBAKIARI**, emango zaiola. Beraz, txartelak badituzu ondo begiratu!

ONGARRI ZINE KLUBA

Hil honetan pelikula 'madarikatuak' eskainiko ditugu. S. Brodov zinemagilearen "El prisionero de las montañas" Errusian egina dago. Filme hau bitxi txiki bat dela esan daiteke. Sari ugari jaso ditu: Cannes 96 jaialdian kritikaren eta ikuslegoaren saria; 1997an atzerriko pelikularik onena izendatu zuten Oscar sarietarako eta 97ko Felix Europarretan gidioen atalean saritu zuten. Errusia eta Checheniaren arteko istuluen berri ematen digu, giza ikuspuntu eta poetiko batetik. Era berean, Checheniako herriaren kultura eta bizimodua erakusten ditu.

D. Lynch-en "Carretera perdida" pelikula polemikoa, enigmatikoa eta sugerentea da. "Corazón salvaje" eta "Terciopelo azul" filmeetan bezala, estilo irreal, fantasioso eta misteriotsua darabil.

R. Francoren "La buena estrella", filme 'madarikatua' hau ere. Modek markatzen dutenaren kontrako bidetik, 97 urteko Goya saria jaso du pelikula honek.

● Ate Irekien Eguna Herri Eskolan

Bihar, hilak 28, goizeko 11:30etik hasita, 'Ate Irekien Eguna' ospatuko dute Herri Eskolan. Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek ederki pasatzeko aukera izango dute elkarren arteko jolas, kirol jarduera etab.ekin. Goizean tailerrak antolatuko dira patioan. Eguerdian ludoteka irekiko da 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzat. Ordu berean kirolak hasiko dira patioan eta eguerdiko ordu bata eta erdietan bazkaria izango da guraso eta irakasleentzat. Bazkariaren prezioa 1.500 pta.koa da eta hilaren 23a baino lehen eman behar da izena. Bazkarira joan nahi dutenek Atxutxiamaika Begirale Taldekoekin laga dezakete haurra. Zerbitzuaren zenbatekoa 200 pta. dira. Arratsaldeko 16:30ean "Txoronpio, Pantxi eta Pantxo" k pailazo jaialdia egongo da eta eguna ondo baino hobeto amaitzeko, txokolate bero ederra probatzeko aukera izango du nahi duen guztiak. Egun osoan zehar, bazkalorduan izan ezik, eskola irekita egongo da bisitatu nahi duen edonorentzat.

● Hitzaldiak Herri Institutuan

Martxoaren 3an, DBHaren aurkezpena egingo da Arreiturre Institutuko liburutegian iluntzeko 19:00etan hasita. Begoña Berroeta adituak DBHko ikasleen berezitasunak azalduko ditu. Martxoaren 4an, berriz, Herri Eskolak antolatuta, jolas kolektiboek eta lagunek umeentzat duten garrantziaz hitz egingo dute bi adituk. Saio hau iluntzeko 19:00etan izango da Herri Institutuan.

● Kontzertuak Gaztetxean gaur, hilak 28 eta bihar, martxoak 1

Jorge Fernandez gaztearen epaiketadela eta, Gazte Asanbladak hainbat ekintza antolatu ditu. Gaur, hilak 27, gaueko 22:30etik aurrera, "Jeremiah Jhonson" en kontzertua izango da Gaztetxean. Bihar, hilak 28, "intsu-mituen ehizan dabilen martxa militarra" ren parodia egingo dute arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Gaueko 22:30etik aurrera Bermeoko "Miel de hiel" eta Oviedoko "No más miedos" taldeekin kontzertua izango da. Ez da sarrerarik kobratuko.

● "Tai Chi Chuan" i buruzko hirugarren saioa

Bihar, hilak 28, eta etzi, martxoak 1, Paulo Chagas maisu brasildarrak azken Tai Chi Chuan saioa emango du Kultur Etxean. Ikastaroa goizeko 9:00etatik 13:00era bitartean izango da eta arratsaldean 16:00etatik 18:00ak arte. Igandean, berriz, goizeko emanaldia baino ez da egongo. Orduategia goizeko 10:00etatik 13:00era bitartean. Izena emateko Surya belardendara zuzendu.

T R A N D A R

FARMAZIAK

	Egunez	Gaez
28	Bidasolo	Bidasolo
1	Bidasolo	Bidasolo
2	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
3	Anduaga	Anduaga
4	Yudego	Yudego
5	Zabaleta	Zabaleta
6	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)

ANDUAGA: Mendarozabal, 1
Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

1 igandea Fothero

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: David Lynch.
Antzezleak: Patricia Arquette, Bill Pullman, Balthazar Getty.

Carretera perdida (1996)

Fred eta Renée bikotea dira baina azken honek maitale bat du. Antsietatez eta susmoz beteriko harremana da elkarren artekoa. Bideo zinta baten erruz Fred-i hilketa bat leporatzen diote eta gartzelara eramango dute. Aske lagatzen dutenean, pertsona erabat ezberdina izango da Fred. Alice-ekin maitemintzen da baina, Alice ganster baten neska-laguna da.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

◆ Neska gaztea behar da larunbat arratsaldeetan tabernako barran lan egiteko. ☎ 74 37 71

◆ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ 74 45 87

◆ ESKAERA ◆

◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko egun osorako. Esperientziarekin. ☎ 19 21 28 (Asun)

◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ 74 23 90

◆ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ 74 21 44 (Ana Isabel)

◆ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ 74 43 31 (Agurtzane)

◆ Eskopetero-armeroa eskaintzen da rebarbatze lanak, eskopetero, limatzaile edo pulidore lanak egiteko ☎ 17 47 70

◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ 17 47 70

Salerosketak

◆ SALDU ◆

◆ Kamila bat eta infragorri lanpara saltzen dira. ☎ 70 26 34

◆ Arraunerako gimnasia makina saltzen da. ☎ 74 43 62

◆ La Unión elkarteko bazkide batak bere partizipazioa saltzen du. ☎ 74 43 62

◆ Bero elektriko akumuladoreak (berogailuak) salgai. ☎ 74 15 19 (eguerdian).

◆ Motorrean ibiltzeko bi kasko ditut salgai. Berri-berriak daude eta prezioaren laurdenean saltzen ditut. ☎ 74 37 16 (E. Mancebo)

◆ Kotxesila berria salgai. Plasti-kozko kapota dauka. ☎ 74 08 17

◆ Aukera. Samsung bideoa salgai, SV-60XX modelo. 4 kabezal, funtzioak pantailan, Eurokonektorea, LP eta SP, Index bidezko bilaketa, autotracking digitala eta estereoa. Urtebete baino gutxiago du. 30.000 pta. ☎ 74 02 09 (Alberto. 19:00etatik aurrera)

◆ Ordenadorerako mahaia saltzen da. Berria dago eta teklatuaren balda atera egin daiteke. ☎ 74 44 46 (Goizez)

Partikularrak

◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 00 98

◆ Kimika lizentziatua naiz eta fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 74 44 45 (Arrate)

◆ Latin eta literatura klaseak emateko irakaslea behar da. Curriculum-a bidali **Bergarako 245 postaktuxara**.

◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 75 50 35 (Imanol)

◆ Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. ☎ 74 41 16/ 907 15 30 62

◆ Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. ☎ 74 12 05 (gauzez)

◆ Injineru tekniko industrialak matematika, fisika, kimika, marrazketa eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditu (gaztelaniaz). ☎ 74 22 29 (Begoña)

Garajeak

◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 74 33 39

◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ 74 22 00 (Gaueko 21:00etatik aurrera)

◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04

◆ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandin. ☎ 74 13 82

◆ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ 74 27 89

Etxebizitzak

◆ Bikote bat bizitzeko baserri baten bila dabil Eibar edo inguruetako herrietan. Edozein egoeratan dagoen baserria interesatzen zaigu. ☎ 908 - 47 07 52

◆ Etxebizitza saltzen da Errosario 6-1ean. ☎ 70 26 34

◆ Etxea alokatzen da Santa Ana kaleko 16 zenbakian. 2. pisua da. ☎ 74 37 14

◆ Buhardilla bat salgai P.M. Urruzuno kalean. Igozailua du. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. ☎ 74 34 96 (Ana, gauzez).

Bestelakoak

◆ Ihauterietako astearte gauean plastiko baten barruan zegoen mo-zorroa galdu genuen, Marruecosetik ekarritako erropak ziren. Topatu dituenak Pitxintxura eraman ditzala.

◆ Otsailaren 17an urrezko pultsera galdu nuen zintzilikariekin. Saritu egingo da. ☎ 74 33 37

◆ Erloju baten penduloa galdu dut. Metalezkoa da eta bainu beltza du. Plaza Handitik Santa Ana kalera bitartean galdu nuen. Aurkitzen duenak dei dezala **74 26 55** telefonora edo laga dezala Udaltzaingon edo joan dadila Santa Ana 46, 1-C-ra eta Silvino Santos-engatik galde dezala.

◆ Seilodun eraztuna galdu dut. "T" iniziala dauka grabatua. ☎ 74 27 85.

◆ Caritasek sukaldea, labea eta garbigailua emateko dauzka. ☎ 74 15 09 - 74 12 57

◆ Caritasek ume jaioberri batentzako kuna, bainera eta erropatxoak dauzka emateko. Bestetik, sukalde-rako banketak edo silak hartuko litzuke. ☎ 74 15 09 - 74 12 57

◆ Flauta berri bat galdu dut forro grisarekin. Aurkitu duenak **Udaltzaingon** laga dezala. Eskerrikas-ko.

◆ Karro-denda saltzen da. Egoera onean dago. ☎ 74 24 39

◆ Paparreko orratza galdu nuen duela 20 egun inguru. Perla bat dauka. ☎ 74 02 68

◆ Ume jaioberriarentzat denetik behar dut: kuma, kotxea, bainera... ☎ 74 44 61 (Ion, gaueko 22:00etatik aurrera). Ordaintzeko prest nago.

Agurrak

◆ Nerea Kortazar eta Jorge eta Ane De La Aradari zorionak Antxon bere artera etorri delako. Iloben partez.

◆ Zorionak Ametsi bere mailako neska eta mutilen partez. batez ere mutilen partez.

◆ Zorionak Imanol Etxeberriari otsailaren 21ean urteak bete zituelako. Aupa Txerriro! 6. mailako-en partez.

◆ Zorionak Ion Ander Cerróni hilaren 24an 9 urte bete zituelako. Ikastolako 3A eta 3B gelen partez.

◆ Zorionak Jose Angel Iriondori gaur, hilak 27, urteak bete dituelako. Familia osoaren partez zorionak eta musu haundi bat bere alaba Mireiaren partez.

Agurrak

◆ Zorionak osaba Angeli eta igandean ondo pasa dezala. Bere iloba Elorri eta Nereak eta seme Kepa eta Beñatek.

◆ Aitaxori mila musu eta zorion alaba Elorri eta Nerearen partetik bihotz bihotzez. Tirakada haundi bat belarritik Kepa eta Beñaten partez martxoaren 4an ondo pasa dezazula opatuz.

◆ Zorionak Ana Aizpurua eta Jose Ramon Gurrutzagari Egoitz, Inma eta Manoloren partez.

◆ Zorionak Edurne Gurrutzagari bihar, hilak 28, urteak bete dituelako. Inma eta Manoloren partez.

◆ Zorionak Loinez Polori bihar, hilak 28, 14 urte beteko dituelako. Guraso eta anaia Anderren partez.

◆ Zorionak Mari Tere Garateri bihar, hilak 28, urteak beteko dituelako. Ane, Maddalen eta familia osoaren partez.

◆ Zorionak Iñaki Laskuraini Katxo pisukidearen partez, langile eta sukaldari aparta delako.



◆ Zorionak Alazne Martinezi martxoaren 3an 5 urte beteko dituelako. Bere aizpa Irune eta gurasoen partez. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.

◆ Zorionak Egoitz Rodriguezi hilaren 24an 12 urte bete zituelako. Guraso, aitona-amon eta osaba-izeben partez.



◆ Zorionak Mirari Zubizarre-tari gaur, hilak 27, urteak bete dituelako. Familia osoaren partez.

◆ Zorionak Jonathani hilaren 13an 3 urte bete zituelako. Guraso, amama eta anai-arreben partez.



◆ Zorionak Jorge Martinez Romani otsailaren 28an 8 urte beteko dituelako. Elvira, guraso eta anaia Iban eta Sergioren partez.



ANDONI SEGUNDO
Arreitureko DBHaren
koordinatzailea

Besteen ahotan

Senez maisu eta psikologian lizentziatua gainera, bere lanarekin erabat maiteminduta bizi da gure Andoni.

Mauka ederra da zuzendari batentzat horrelako lankide eta lan eragile bat taldean izatea.

Anjel Ugarteburu
Arreiture Institutuko zuzendaria

- Zer moduz DBHa Arreiturren?

- Erronka polita izan da eta emaitza, oso positiboa.

- DBHko ikasleak bakarrik daude, ezta?

- Bai, hala izango dira. Arreiture DBHa emateko prestatu dugu. Hala komeni da, gainera, adin honetan bereziki.

- Zertan antzematen duzu adin honetako berezitasun hori?

- Nortasunaren garapenean bizi duten gaztaka erraz igarri daiteke. Adinaren heldutasunean funtsezko garaia da, heldutasun fisikoan den bezalaxe.

- Zehaztu ezazu gehiago.

- Bai. Sexu heziketari arreta bereziz heltzeko garaia da, adibidez. Baina ez horri bakarrik. Nagusiagoen ohitura eta mobidetan parte hartzeko irrika ere somatzen da.

- Zer dio zuen Barne Araudiak?

- Adin honetakoentzat egokitu dugu araudia ere. Ezin dute grebetan parte hartu eta ezta erre ere. Ikastetxeko barrutian egon behar dute, bestalde.

- Dena ukatzea ez al da ezkor izatea?

- Hezkuntza proiektuaren ildotik, Osasun Heziketa eta errespetuzko elkarbizitzaren markoan ari garenez, ez dago ezkortasunik.

- Proiektu berririk bai esku artean?

- Ikasleen onerako izan daitezkeen guztiak aztertzen ditugu: ingurugiroari, euskara indartzeari, drogomenpekotasunaren prebentzioari,... dagozkionak, adibidez.

- Datorren ikasturtean, zehazki?

- Baratzari eta kirol guneari etekin gehiago ateratzea, SOCRATES programaren bidez atzerriko ikastetxeekin elkartrukeak egitea... Batzorde pedagogikoan landu ondoren zehaztuko dugu ikasleei zer komeni zaien.

Erretratu zaharrak



BARRENen atera diren
100 erretratu zahar
politena **1.000** pta.

BARREN, ELGOIBARKO IZARRA, PIT-
XINTXU eta GOROSTIZAn
eros dezakezu.